



Euskaltzaindiko buru izendatu zuten abenduaren 17an **Andres Urrutia**, aurreko euskaltzainburu Jean Haritschelharrek kargua utziko zuela adierazi ondoren.

Andres Urrutia Bilbon jaio zen 1954an. Zuzenbide ikasketak egin zituen notario honek Deustuko Unibertsitatean irakasten du. Espainiako Kode Zibilarren euskarazko bertsioaren itzulpena egin duen taldea zuzendu du. Bestalde, argitaratzen berri du *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskarara: 1833-1877*, euskarazko testuen bilduma eta azterketa.



Literaturan ere itzultzaile saiaturik da: Xose Luis Mendez Ferrinen *Percival eta Marisorgina*, Alvaro Cunqueiroren *Hareazko erlojuak*, J.R.R. Tolkienen *Silmarilion* eta James Joyceren *Ostautua* euskaratu ditu, besteak beste.

1991n izendatu zuten euskaltzain urgazle; 1997an, berriz, euskaltzain oso, Alfontso Irigoienek utzitako lekua betetzeko.



Bidegileak bildumako 34., 35., 36. eta 37. sortak kaleratu berri ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Horietatik lehena legegileekin osatutakoa da (Nazario Oleaga, Jesus Maria Leizaola, Hipolito Larrakoetxea eta Boni-

fazio Etxegarai); bigarrena, berriz, euskararen eta euskalgintzaren eragileekin (Antonio Arzak, Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri*, Felipe Arrese Beitia eta Tene Muxika); hurrengo sendagileekin (Jean Etxepare, Fermin Irigarai *Larreko*, Teodoro Hernandez eta Jose Luis Goti); eta, azkenik, laugarrena irakasle eta ikerleekin (Andolin Eguzkitza, Joana Atxabal, Jose Maria Jimeno Jurio eta Jose Mari Satrustegi).

Bidegileak bildumako bibliografiak ikusi nahi izanez gero, jo Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren web gunera: www.euskara.euskadi.net/.



Lankidetzahitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Kultura Sailak eta Alemaniako Johann Wolfgang Goethe-Universität Frankfurt am Main Unibertsitateak, honen eta zenbait euskal erakunderen artean (unibertsitateak eta ikasketa-erakundeak) harreman zabal eta etengabea ezartzeko asmotan.

Hitzarmenak lau eremu hauei ekitea du xede:

1. Euskal gaietan espezializaturiko funts bibliografiko bat eratzea eta eguneratzea.
2. Euskarako ikastaroak antolatzea, bai eta euskal kulturako ikastaroak ere, Alemaniako unibertsitate-eremuan.
3. Bereziki euskal hizkuntza, literatura eta kulturaren gaineko eta oro har euskal gaien gaineko materialak prestatzea eta argitaratzea, eta Goethe Unibertsitateko Euskal Liburutegiari arreta ematea.
4. Euskal gaien gaineko mintegi, jardunaldi eta hitzaldien antolaketan batera parte hartzea.



Berriturik dator Eusko Jaurlaritzaren web gune nagusia www.euskadi.net eta, ondorioz, baita euskararen www.euskara.euskadi.net. Erabiltzaileak ohiko edukiak ditutari eraberrituan: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Euskararen bilakaera, Diru laguntzak, Jardun eremu estrategikoak, Euskararen corpusa etab.



Web-a eleanitza da, eta teknika aldetik egindako hobekuntzei esker, aurrekoa baino erabilerrazagoa.



Utarrilean egin da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EUDELein batera hizkuntza politikari buruz EAEko euskaraz zinegotzi eta teknikari hasi berrientzat antolatutako **ikastaroa**. Ehun ikaslelik gora aritu dira hizkuntzaren normalizazioaren inguruan hartu behar diren erabakiak hartu ahal izateko oinarritzko ezagutza eta irizpideak ematea helburu zuen ikastaro honetan. Edukiak honako lau moduluetan banatu dira:

1. Euskararen estatus juridikoa.
2. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa.
3. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.
4. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena udaletan.

Antolatzaileen esanetan, bete dira ikastaroaren helburuak, batetik, ikasleek edukiak erraz eta gogoz landu dituztelako, eta, bestetik, hiru ikaslelik bik ikastaroa internet bidez burutu dutelako. Emaitzak ikusita, zinegotzi eta teknikari-entzat interesgarriak izan litezkeen beste gai batzuen inguruan internet bidez ikastaro gehiago antolatzeko gogorik ez da faltako.



"Habla en cristiano", horixe da Sabino

Arana Kultur Elkargoak Getxon egin berri duen erakusketaren izena. Helburua, berriz, frankismo garaian euskarak jasan zuen zapalketaren berri ematea edota gure hizkuntzaren kontrako inposizioa zertan izan zen adieraztea. Erakusketan bildu dituzten agiri historikoetan dira, besteren artean, Getxoko bertsolari bati ezarritako isuna eta Gipuzkoako apaizei gaztelaniaz besteko hizkuntza batean hitzaldia egiteko debekua.

Hainbat herritan izan da orain arte erakusketa eta Getxon egon ondoren, Amurrión izango da ikusgai martxo-apirilean.



Ereduzko euskal prosa lanaren aurkezpena egin berri dute Euskararen Donostia Patronatuaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean. Proiektuaren helburu da erabiltzaileari hitz forma egokienak, esapide aukerakoak eta jokabide zuzenenak hautatzen laguntzea. Horretarako, ereduzkotzat jo dituzten egungo ehun idazleren 152 liburu, hau da, 7 milioi hitz bildu dituzte Ibon Sarasolaren ardurapean. Hurrera, liburu eta lanabes gehiago eskaintzea izango da erronka.

Kontsultak egiteko helbideak: www.ehu.es/euskara orria nahiz www.euskaraz.net.



Roldan Jimeno eta Juan Carlos López-Mugartza irakasleek Ebrotik Garonara arteko hizkuntz egoera aztertzen duen liburu bat editatu dute: **Vascuence y Romance: Ebro-Garon, un espacio de comunicación**. Bertan, aipatutako bi ibaien arteko lurretan hitz egin izan diren hizkuntzak aztertzen dituzte egileek: euskara, latina, hebraiera, arabiera, gaskoia, nafar-aragoiera eta gaztelania.

Nafar Ateneoa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan dira argitaratzaile.



euskararen aldeko mezuekin.

Kanpaina Bilboko Udalak eta *Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkartek* **Zazpi Kaleetako ingurugiro komertziala euskalduntzeko akordioa** sinatu berri duten hitzarmenaren ondorio da. Berez, euskara sustatzeko hitzarmen hau 2005ean abiaraziko da eta hainbat eragin esparru izango ditu: saltegieta publikitate, leloak, elkarte mezu zein agerraldiak, kanpo errotulazioa, ostalaritzako menuak eta bestelako euskarriak.



Liburuzaleek gustura hartu duten ekimen berria: **"Gure liburuak. Euskal Herriko irakurle kluba"**. Izan, Euskal Herriko lehenengo irakurle kluba da eta hainbat abantaila eskaintzen dizkio harpidedunari; honek, trukean, irakurle klubaren ohiko konpromisoak bete behar ditu.

"Gure liburuak" klub berriak era guztietako liburuen eta disko zein liburu aniztasunaren alde egingo duela adierazi du, euskaraz eta gaztelaniaz, gure kultura oinarritzat harturik betiere.

Informazio gehiago Interneten, honako helbidean: www.gure-liburuak.com.



Pentsamenduaren *Klasikoak* bildumaren aipamena egin genuen abenduko alean, *Jakin irakurgaiak* eta UPV-EHuren *Limes* sail berria aitzakia. Oraingo ale honetan Pello

Salaburuk zuzentzen duen lehenengo hura dugu berriz aipagai, joan deneko hamalau urtean itzuli dituen 100 tituluak aurkeztu baititu **Pentsamenduaren Klasikoak** bildumak, web gunearekin batera. Gainera, titulu horietako testu osoak saretik zuzenean jaisteko moduan jarri dituzte www.klasikoak.com helbidean.



Zure burua kaleko poeta-tzat baduzu... Zure etxe pareko igeltseroen piropo kaxkarrez aspertuta bazaude... Hauxe duzu trebezia erakusteko aukera". Urtxintxa Eskolak eta Ttakun Elkartek gazteei zuzendutako **Piropo lehiaketa**

antolatuko dute egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala sustatzeko asmotan. 18 urte bitarteko gazteek dute lehiaketan parte hartzeko eskubidea. Horretarako, www.aisia.net helbidera bidali behar dituzte hitz ederren proposamenak, otsailaren 19a baino lehen.

Bergarako Jardun Euskara Elkartek, berriz, **Amodiozko Gutunen XIII. Berrigara Lehiaketaren** irabazleen izenak jakinaraziko ditu otsailaren 14an, San Balendin egunez. Elkartek **SMS mezuen lehiaketaren** hirugarren edizioa antolatu zuen urtarrilean. Berri gehiago, kultu-rajardun@topagunea.com helbidean.



Gero eta bidaia gehiago egiten da eta gero eta urrunago joateko joera dugu euskaldunok. Bidaia irabazlearen helburuari dagokionez, bistan da, helmuga ez ezik, bidea bera dela helburu, sarritan. Horretan, oinarriko esperientzia abiatu berri du Euba-Amorebietako Bideak agentziak: **bidaia oso-osorik euskaraz egiteko aukera** ematen duen lehenengo agentzia baita. Gidak, gidariak, itzultzaileak, antolatzaileak eta beste, bidaian parte hartzen duten lagun guztiak euskaraz mintzatuko dira.

Esperientzia berri honen albiste gehiago, Bidaiak agentzian, info@bideak.info helbidean.



Filosofia *gida* argitaratu du Ueuk, filosofian euskaraz ari direnei oinarriak jartzen laguntzea helburu duen lana. Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Joana Garmendia eta Iñaki Sotoren artean

koordinatu dute jatorri eta joera ezberdineko hogei egileren lanak biltzen dituen argitalpena. Taldeak lan handia egin du euskara finkatzeko, eta etorkizuneari ere lan horretan jarraitzeko asmoa dute.


euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA

Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea izeneko argitalpena kalera-
tu du Euskararen Aholku Batzordeak, Erramun Osak eta Iñaki Arrutik egindako oinarriko txostenetik abiatutik.



Lanaren lehenengo zatian ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeari buruzko gogoeta egiten da eta, bigarrenean, aldiz, EBPN udal-ereduak garatzeko neurrien gainekoa. Ondoren, aurreko biok uztartzeko proposamena egiten da, jardun-esparru ezberdinak kontuan harturik.

Argitalpenean, gainera, euskararen erabilera indartzeko bestelako proposamenak ere ageri dira.



Gernikatik New Yorkera Berli- netik pasatuz

Jose Antonio Agirre, Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakariak idatzitako libururen euskarazko edizioa argitaratu berri du Erein argitaletxe-

ak. Lan hau 1943an argitaratu zen lehenengo aldiz, Buenos Airesko erbestean. Bertan, Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, Agirre lehendakariak lehen pertsonan idatzirik bizipenak biltzen dira.



Eusko Legebiltzarrak 2003an onartutako Kontsumitzaileen Legeak txikizkako salmentan euskararen erabilera izan ditzakeen ondorioen inguruan bi eguneko **jardunaldiak** antolatuko ditu 2005eko martxoaren 16an eta 17an Debagoieneko Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko nahiz Bergarako udalek lagunduta.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **Hirugarren Mapa Soziolinguistikoa** argitaratuko du laister. Bertan, EAEko euskararen egoerari buruzko datu esanguratsuenak jaso dira. Aurreko bi mapetan ez bezala, oraingoan Autonomia Erkidegoari dagokion informazio orokorra lau hizkuntzatan argitaratu da.

Horrez gain, udalerrri jakin baten berri eduki nahi izanez gero, euskarri informatikora jo daiteke. Izan ere, liburuari CD bat erantsi zaio, eta bertan datu ugari jarri da erabiltzaileen eskura. Lana www.euskara.euskadi.net helbidean kontsulta daiteke.



Boga-boga kantu liburu klasiko berrargitaratu du Elkar etxeak, CD eta guzti. Donostiako apaizgaitegian ikasten ari ziren hiru apaizgaik prestatutako kantutegia 1959an argitaratu zen lehenengo aldiz liburu itxuran, nahiz eta bi urte lehenago eskuz esku ibili, multikopia bidez. 83 kantu biltzen dira bertan eta horietarik 22, ezagunenak, jaso dituzte CDan: "Agur Jaunak", "Bautista Basterretxe", "Jeiki, jeiki", "Aldapeko", etab. Juan Pablo Lizartzak zuzendu duen koru txiki batek interpretatu ditu kantuok.

Argitalpen apala izateko asmoa zuen *Boga-boga*-k 1959an, baina uste ez bezalako indarrez lagundu zion euskararen sugarrari frankismo latzaren garaian.



Ipuinak sarean irakurtzeko bidea egiten duen web gunea, izan norberarenak edo besterena. Betiko kantak entzuteko aukera. Jolasak jaisteko modua. Haur eta gaztetxoentzako askotariko informazioa eskura jartzen duen Internet txokoa dugu **txiki.net**, "euskal umeon z(d)ibertxokoa". Garatzen ari den proiektua, hazteko eta hobetzeko asmoa duena. www.komunika.net/txikinet du helbide.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es